



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

ERAKUNDE ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

1. KAPITULUA. ELKARTEA ETA BAZKIDEAK

1. Artikulua

1. Euskadiko Udalen Elkarte-Asociación de Municipios Vascos izena duen elkartea -aurrerakoan Euskadiko Udalen Elkarte-, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen eraginpean dago, eta bere Estatutuetan aurreikusitako helburuak lortzeko borondatez bat egiten duten udalerrri guztiek osatzen dute. Bere jarduera Euskal Herrian gauzatzen du batez ere.
2. Elkarte bere Estatutuen eta Gobernu Organoek hartutako erabakien arabera arautuko da, eta, modu osagarrian, lehen adierazitako 7/2007 Legearen eta hura garatzeko onartzen diren erreglamenduzko xedapenen arabera.
3. Araudi honetan eta Batzar Orokorrak, bere kasuan, hartzen dituen erabakietan ezartzen diren izaera eta eraginak izanik, bazkideak dira, halaber, udalerrri bazkideek parte hartzen duten edo bertan barne-egitura duten udalerriz gaindiko eta azpiko erakundeak, Elkarteari atxikitzea erabakitzen badute.

2. Artikulua

1. Elkarteari atxiki nahi zaizkion toki-erakundeek idazki baten bidez eskatuko dute, horrekin batera dagokion udalbatza-erabakiaren ziurtagiria aurkeztuta.
2. Eskaera jasotakoan, eta hura formal bihurtzeko, eskaera hori Batzorde Eragilearen lehen bilkuran aurkeztuko da. Bertan, Batzorde horrek eskatzailea toki-erakundea dela egiaztatuko du, baita bazkide osoa dela deklaratu ere, eskatzailea udalerrria bada; bazkide laguntzailea dela deklaratu du, 1. artikuluko 3. idatz-zatian adierazitako erakundeetako bat bada.

3. Artikulua

1. artikuluko 1. idatz-zatiari dagokionez, udalbatzak erabakitzen duen unetik emango da gauzatutzat atxikimendua. Halaber, 1. artikuluko 3. idatz-zatian adierazitako toki-erakundeei dagokienez, estatutuz edo legez dagokion organoak erabakitzen duenean emango da gauzatutzat atxikimendua.

4. Artikulua

- 1.- Elkarte bazkide osoz eta bazkide laguntzailez osatuta dago. Atxikitako udalak bazkide osoak izango dira. Elkartera atxikitako mankomunitateak, elkarteak, tokiko erakunde txikiak eta tokiko gainerako erakundeak bazkide laguntzaileak izango dira.
- 2.- Bazkide osoek eta laguntzaileek euren presidentearen edo horretarako izendatutako zinegotziaren bitartez esku hartuko dute elkartean.

5. Artikulua

1. Elkartearen helbide soziala Gasteizeko Manuel Iradier kaleko 7. zenbakiko 2. solairuan dago. Dena den, Elkartearen kide anitzeko organoen bilkurak EAeko edozein lekutan egin ahal izango dira.
2. Aurreko idatz-zatiari dagokionez, kide anitzeko organoen bilkurak egiteko, bazkideek beren bulegoak erabiltzen utzi behar diote Elkarteari.

2. KAPITULUA. ORGANOAK ORO HAR

6. Artikulua

1. Elkartearen organoak honako hauek dira: Batzar Orokorra, Batzorde Eragilea eta Lurralde Batzordeak.
2. Aurrekoek erabaki beharreko gaiak aztertzeko eta horiei buruzko txostenak egiteko, organo osagarriak sortu ahal izango dira, betiere Araudi honetan ezarritakoari jarraiki.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Batzar Orokorra

7. Artikulua

Hona hemen Batzar Orokorraren eskumenak:

- Elkartearen estatutuak onartzea eta aldatzea.
- Batzorde Eragileko eta Lurralde Batzordeetako ordezkariak aukeratzea, haien kudeaketa kontrolatzea eta, hala badagokio, ezohikotasunez ezeztatzea, estatutu hauetan zehaztutako arauak kontuan hartuta.
- Urteko Jarduketa Plana onartzea. Bertan, aparteko atala agertu beharko da 2.500 biztanle baino gutxiago dituzten udalenzako jarduketetarako.
- Aurrekontuak eta kontu orokorrak onartzea. Bertan, elkarteko langile finkoen lanpostuen zerrenda agertuko da, bai eta aldi baterako kontratazioen aurreikuspenak eta ordainsarrietan ezarri beharreko arauak nahiz irizpideak ere.
- Batzorde Eragileak eta Lurralde Batzordeek aurreko ekitaldian garatutako kudeaketa onartzea. Kudeaketari buruzko txostenean, batzarrak urte horretarako onartutako Urteko Jarduketa Planean zer bete den zehaztu beharko da, baita ekitaldiko ordainsariei, bertaratzeagatiko dietei eta kalte-ordainei buruzko datuak ere.
- Barne Araubideari buruzko araudiak onartzea.
- Hala badagokio, elkartea desegitea.
- Elkarteko arduraldi osoko edo mugatuko gobernu-organoetako ordezkarien ordainsariak onartzea, baita honako hauek zehazteko irizpideak ere: bertaratzeagatiko dietak eta elkarteko jardueretan parte hartzean edo lan egitean Batzorde Eragileko edo Lurralde Batzordeetako kideek garraioaren eta mantenuaren arloan dituzten gastuak.
- Legeen edo estatutuen arabera duen beste edozein garatzea.

8. Artikulua

1. Batzar Orokorrak ohiko eta ezohiko bilerak egingo ditu.
- 2.- Batzarrak ohiko bilera egingo du urtean behin; eta ezohikoa, Batzorde Eragilearen ustez beharrezkoa denean edo bazkide osoen bostenek edo euren botoen bidez bazkide guztien botoen bostena daukaten bazkideek eskatzen dutenean.
- 3.- Bileretarako deia hilabete lehenago egingo dira, gutxienez.
4. Ohiko eta ezohiko batzarra behar bezala eratzeko, bazkide oso gehienak egon beharko dira lehenengo deialdian; eta, ordu erdi geroago deitutako bigarrenean, bazkide osoen herenak. Kopuru horretara iritsi ezean, batzarra bertan behera utzi, eta deialdi berria egingo da.

9. Artikulua

1. Nola Ohiko Batzarrerako hala Ez Ohiko Batzarrerako, deialdiarekin batera, landuko diren Gaien Zerrenda aurkeztuko da, betiere Batzorde Eragileak onartuta. Bertan, nahitaez bildu beharko da gutxienez bazkide osoen bostenek edo beren botoez bazkide guztien botoen bostena lor dezaketen bazkideen kopuru jakin batek eskatutako edozein gai, betiere Elkartearen helburuei badagokie. Batzarra egin baino lehen, halaber, bertan landuko diren gaien buruzko dokumentazioa helaraziko zaie bazkideei.
2. Batzarrak Gai Zerrendako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu.

10. Artikulua

1. Gaiak, lehendabizi, eztabaidatu egingo dira, eta, ondoren, botatu egingo dira.
2. Ez da onartuko bazkideek beren botoak beste bazkide batzuen esku uzterik.

11. Artikulua

1. Elakrteburuak proposatuta, Batzarrak gai jakin bat gai-zerrendaren arabera zegokiokeen unean ez aztertzea erabaki ahal izango du, baina betiere bilkura horretan aztertu beharko da.
2. Eztabaidari ekingo zaio norbaitek hitz egiteko txanda eskatzen badu, baita, hitz egiteko txandarik eskatu gabe, boto partikularrak eman edo zuzenketak egiten direnean. Orduan, boto hori edo zuzenketa hori egin duenak eusten diela edo bertan behera uzten dituela adieraz dezake, besterik gabe.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

12. Artikulua

8.2 artikuluari jarraiki bazkideek Batzar Orokorraren bilkura egitea eskatzen dutenean, Elkarteburuak eskaera jaso eta hilabeteko epean hartarako deialdia egingo du.

13. Artikulua

1. Hauteskundeei buruzko berariazko arauak bazter utzi gabe, erabakiak botazio arrunt bidez hartuko dira, betiere kasu jakin baterako Batzarrak izenezko botazioa egitea erabakitzen ez badu. Botazio arrunta bazkide guztiek batera eskua altxatuz egiten da. Izenezko botazioan, berriz, idazkariak banan-banan galdetzen die bertaratuei eta haiek bai ala ez erantzuten dute.
2. Gai bat aztertzen hasitakoan, kideren bat bertan ez badago, dagokion botazioan, kide horren abstentzioa zenbatuko da.

14. Artikulua

Oro har, Batzarrak emandako botoen hiru bosteneko gehiengoaz hartuko ditu erabakiak.

15. Artikulua

1. Bazkideen boto guztien erabateko gehiengoak alde emandako botoa beharko da, gobernu-organoen izendapena ezeztatu ahal izateko.
2. Emandako botoen bi herenen edo lau bostenen boto kualifikatua lortu beharko da, Estatutuak aldatzea edo Elkarte desegitea erabakitzeko, hurrenez hurren.

16. Artikulua

Bazkide titular bakoitzak batzarrean edukiko dituen botoak honako eskala honen arabera izango dira:

- 1.000 biztanlerainoko udalak:	boto 1
- 1.001-2.000 biztanlekoak:	2 boto
- 2.001-3.000 biztanlekoak:	3 boto
- 3.001-5.000 biztanlekoak:	4 boto
- 5.001-10.000 biztanlekoak:	5 boto
- 10.001-20.000 biztanlekoak:	10 boto
- 20.001-50.000 biztanlekoak:	15 boto
- 50.001-100.000 biztanlekoak:	20 boto
- 100.001-150.000 biztanlekoak:	25 boto
- 150.000 biztanletik gorakoak:	30 boto

17. Artikulua

Batzarra indar osoz eratutakoan, honako arau hauei jarraiki funtzionatuko du:

1. Elkarteburuak bilkurari hasiera eman ondoren, Gai Zerrendako dagokion puntua eta Erabaki-proposamena irakurriko da. Hala badagokio, boto partikularrak eta zuzenketak ere irakurriko dira.
2. Aurreko dokumentuak irakurri ondoren, elkarteburuak eztabaida irekiztat emango du, eta, inork hitz egiteko txandarik eskatzen ez badu, gaiak aho batez onartutzat emango dira. Norbaitek txanda eskatzen badu, proposamena sinatu duena edo hark adierazitako ordezkaria hasiko da hitz egiten, eta, ondoren, hitz egitea eskatu duten zuzenketa-proposatzaileek hitz egingo dute; segidan, hitz egiteko txanda eskatu duten gainerakoek, betiere txanda eskatu duten ordenari jarraiki; elkarteburuak, halaber, erantzuteko eta berrerantzuteko txandak eman ahal izango ditu, baita aipamenengatik hitz egiteko txanda ere. Bakoitzak ez du hamar minutu baino gehiago hitz egingo. Elkarteburuak baino ezin izango dio moztu hizketan ari denari, eta honako arrazoi hauengatik: hitz egiteko denbora gairiditu duelako, eztabaidatzen ari den gaiari buruz ari ez delako, onartu edo eztabaidatu den gai bati berriz ekin diolako, edo ohartarazi behar zaiolako.
3. Elkarteburuak eztabaida bukatutzat eman ahal izango du gai horri buruz nahikoa eztabaidatu dela deritzon.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Halaber, betiere bere irizpide zuzurraren arabera, Batzarraren ebazpena gehiegi luzatzen ari diren gorabeherak erabaki ahal izango ditu.

4. Eztatanda amaitu eta boto partikularrak nahiz zuzenketak botatu ondoren, elkarteak botazioaren nondik norakoak eta botoa nola emango den azalduko du, labur eta argi, eta botazioari ekingo zaio.

18. Artikulua

Bertaratutakoren batek araudia urratzen duenean edo erakunde Publikoak iraindu edo horien izen onari eraso egiten dionean, elkarteak ohartarazi ahal izango du, baita hitz egiteko txanda kendu ere.

19. Artikulua

Idazkariak bilkura bakoitzaren akta egingo du, bertan honako alderdi hauek bilduta:

- a) Bilera egin den tokia, udalerraren izena eta bilera egin den lokala adierazita.
- b) Eguna, hilabetea eta urtea.
- c) Bilera hasi den ordua.
- d) Elkarteak diren beste guztien izen-abizenak, kargua eta udalerrria, eta ezin bertaratu izana adierazi duten bazkideen aipamena.
- e) Bilkura ohikoa edo ez-ohikoa den eta lehen edo bigarren deialdian egin den.
- f) Zuzendaria eta idazkaria ala haien ordezkariak bertaratu diren.
- g) Aztertutako gaiak eta gai horiei buruz hartutako erabakiaren xedapenezko parteak.
- h) Egiatututako botazioak.
- i) Bertaratutakoen iritzien eta arrazoien laburpena eta boto partikularrak, betiere irizpideak bateratzea lortu ez eta interesdunek eskatzen badute.
- j) Ekitaldian gertatzen den gorabehera oro, betiere idazkariaren iritziz, gordetzeko modukoak badira.
- k) Elkarburuak bilkura amaitutzat eman duen ordua.

20. Artikulua

1. Bilkura bakoitzaren hasieran, idazkariak aurreko aktaren zirriborroa irakurriko du, eta, inork ados ez dagoela adierazten ez badu, onartutzat emango da.
2. Hartutako erabakietan parte hartu zuten kideetakoren baten iritziz puntu jakiren baten idazketak landu edo erabakitakoari buruzko zalantzak sortzen baditu, argi dadin eskatu ahal izango dio elkarteak, edo, egokituz jotzen bada, berriz idatziko da aktan akats materialak edo izatezkoak zuzenduta, betiere hartutako erabakien funtsa aldatu gabe. Aldaketa zirriborroaren marjinan idatziko da.
3. Akta bakoitzean aurrekoa irakurri eta onartu dela jasotzean, egindako ohar edo zuzenketak bilduko dira, aurreko paragrafoari jarraiki.

Batzorde Eragilea

21. Artikulua

1. Elkarteak, bi elkarteak edo eta hamabi kidek osatuko dute Batzorde Eragilea, eta bazkide titularren ordezkariak izan beharko dira.
2. Zerrenda itxien bidez hautatuko dituzte.
3. Zerrenda itxi bakoitzean, emakumeen eta gizonen osaera orekatua egon beharko da, zerrenda osoan sexu bakoitzeko kideen kopurua gutxienez %40koa izan dadin. Era berean, bost postuko tarte bakoitzean ere eutsi beharko zaio proportzio horri.
4. Zerrenda itxi bakoitzean, 2.500 biztanletik beherako udaletako ordezkaria den hautagaia agertu beharko da derrigorrean lau hautagaiko tarte edo frakzio bakoitzean, betiere, zerrenda aurkezten duen alderdiak, koalizioak edo taldeak biztanle-kopuru horretako udalen bateko alkatetza lortu badu.
5. Postuak proportzioan banatuko dira zerrenden artean, eta, horretarako, hauteskunde-kozienteko zein hondar handieneko sistema erabiliko da.
6. Hala badagokio, zerrendako hurrengo pertsonak edo pertsonak beteko dituzte postu hutsak.
7. Boto gehien lortu dituen zerrendako burua izango da elkarteak. Lehen eta bigarren elkarteak 2. eta 3.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

zerrendetako buruak izango dira, hurrenez hurren, betiere, emandako botoen %15en babesla lortu badute. Hala ez bada, %15 gainditu duten zerrendetakoak izango dira erakunde buruordeak.

8. Nolanahi ere, boto guztien lau bosten lortzen dituen edozein hautagaitzako kideak hautatu ahal izango dira.

Bere ekimenez edo, gutxienez, bazkide titularren %8k eskatuta, Batzorde Eragileak hautagaitza independentetek gobernaturako udaletako ordezkari bat gonbidatuko du, Elkarteko arauen ondorioz ordezkariarik lortu ez badute. Hartara, bertan parte hartu ahal izango du, zenbait gairi buruzko azterketa egin eta erabakiak hartzen direnean.

Partaidetza bazkide titularren eskaeraren ondorioz sortu denean, honako haxe adierazi beharko da bertan: joratu nahi duten udal-eskumenpeko gaia, bazkide titularren sinadura eta bazkide eskatzaileek izendatutako pertsonaren datuak. Pertsona horrek hitza izango du, baina botorik ez.

22. Artikulua

Legezko agintaldia betetzeagatik udalak eurak berritzen direnean berrituko da Batzorde Eragilea. Horretarako, Batzar Orokorra egingo da udalak eratzeko zehaztutako legezko azken egunetik zenbatzen hasita hiru hilabetetik gorakoa ez den epean, betiere, hauteskunde-errekurtsorik egon bada. Nolanahi ere, Batzorde Eragileko ordezkariak ohiko administrazioko eginkizunak egiten baino ez dute jarraituko, harik eta ordezkatzeko dituzten arte. Hori dela eta, ezin izango dute gehiago kualifikatua behar duen erabakirik hartu.

Era berean, ezeztatzeko prozeduraren ondorioz ere berrituko da Batzorde Eragilea, Estatutuaren 15.2. artikuluan eta Batzorde Eragileko kideak hautatzeko arauetan xedatutakoa kontuan hartuta.

Agintaldian sortu daitezkeen postu hutsak zuzenean beteko ditu, betiere, berariaz uko egiten ez badiu, postu hutsa betetzen duen zerrendako hurrengo pertsonak edo ordezkariak, hala badagokio.

23. Artikulua

Batzorde Eragilea elkarte buruak erabakitzen duenean edo batzorde horretako kideen bosten batek gutxienez eskatzen duenean bilduko da. Nolanahi ere, gutxienez urtean sei aldiz bilduko da.

24. Artikulua

Honakoak izango dira Batzorde Eragilearen eginkizunak:

- Batzar Orokorren erabakiak betearaztea.
- Elkartea zuzentzea eta administratzea, bere helburuak bete ditzen.
- Instanzia politiko eta administratiboekin harremanetan egotea.
- Lurralde Batzordeetako lanak koordinatzea.
- Euskalduntzeko Plana egitea eta bete egiten dela bermatzea.
- Genero berdintasunerako Planak egitea eta bete egiten direla bermatzea.
- Azterketak eta argitalpenak orientatzea.
- Ondarearen administrazioa zuzentzea.
- Elkartearen zerbitzura dauden langileen politika zuzentzea. Batzarrari Elkarteko lanpostuen zerrendaren proposamena aurkeztea, eta aurreikusita ez dauden egoerei aurre egiteko aldi baterako kontratazioei buruzko erabakiak hartzea. Urteko lehenengo batzar orokorrean horren berri ematea.
- Bazkide berriak atxikitzeko eskabideari egoera formala ematea.
- Estatutuaren 9.b eta c artikuluetan adierazitakoaren arabera, bazkide-izaera galtzeko espedienteak bideratzea.
- Elkartek berak izendatu behar dituzten, erakunde horietako udal-ordezkariak izendatzea, Estatutuaren 22. artikuluan xedatutakoari inolako kalterik egin gabe.

Batzorde Eragileak bertaratutakoen hiru bosteneko gehiengoak hartuko ditu erabakiak.

Erabakirik egonez gero, Batzorde Eragileko edo Lurralde Batzordeetako kideen herenek txostenak edo irizpenak egiteko eskatu ahal izango dute, gobernu-organoei errazago erabaki dezaten. Ondorio horietarako, helburua eta irismena zein diren azaldu beharko da eskabidean.

25. Artikulua

Batzorde Eragileak azterlan-taldeak sortu ahal izango ditu Elkartearen helburuekin zerikusia duten gaien buruzko txostenak eta irizpenak egiteko.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

26. Artikulua

Elkarteburua gaixorik dagoenean edo bertaratzen ez denean, elkarteburuordeek ordeztuko dute, izendapen-ordenaren arabera.

27. Artikulua

Elkarteburuak legezko ondorio guztietarako ordezkatzan du Elkartea. Era berean, Batzarraren eta Batzorde Eragilearen bileretarako deialdia egiten du, bileren burua da, eta bilerak zuzentzen ditu; halaber, bere eskumenetako batzuk Batzorde Eragileko ordezkarien esku utz ditzake.

28. Artikulua

Batzorde Eragileari 10., 14. eta 20. artikulua ere aplikatuko zaizkio. Halaber, 19. artikulua aplikatuko zaio Batzorde Eragileari, e) idatz-zatia izan ezik eta d) idatz-zatian aldaketa bat eginda; hain zuzen ere, bertaratu diren eta bertaratu ez diren ordezkarien izen-abizenak, kargua eta udalerrria aipatuko dira; bertaratu ez diren ordezkariak dagokienez, bertaratu ezin izana adierazi dutenen nahiz adierazi ez dutenen datu horiek guztiak aipatuko dira.

29. Artikulua

Batzorde Eragileko ordezkariak dagokion Lurralde Batzordeko ordezkariak ere izan daitezke.

Lurralde Batzordeak

30. Artikulua

1. Lurralde bakoitzean, Batzorde bat eratuko da, Estatutu hauetan eta Batzar Orokorrean xedatutakoa kontuan hartuta.
2. Lurralde Batzordeek bederatzi kide izango dituzte, lurralde bakoitzeko bazkide titularrek zerrenda itxien bidez hautatuko dituzte eta postuak euren artean banatuko dituzte proportzioan, hauteskunde-kozienteko zein hondar handieneko sistemaren bidez.
3. Zerrenda itxi bakoitzean, emakumeen eta gizonen osiera orekatua egon beharko da, zerrenda osoan sexu bakoitzeko kideen kopurua gutxienez %40koa izan dadin. Era berean, bost postuko tarte bakoitzean ere eutsi beharko zaio proportzio horri.
4. Zerrenda itxi bakoitzean, 2.500 biztanletik beherako udaletako ordezkaria den hautagai bat agertu beharko da derrigorrean lau hautagaiko tarte edo frakzio bakoitzean, betiere, zerrenda aurkezten duen alderdiak, koalizioak edo taldeak biztanle-kopuru horretako udalen bateko alkatetza lortu badu.
5. Hala badagokio, zerrendako hurrengo pertsonak edo pertsonak edo, hala badagokio, ordezkoek beteko dituzte postu hutsak.
6. Lurralde Batzordeek euren lurralde-eremuko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango dituzte, betiere, Batzorde Eragilearen eskuordetzea badute.
7. Lurralde Batzordeek Elkarteak lurralde bakoitzeko organoetan dituen ordezkariak izendatuko dituzte, ordezkariak lurralde-eremu horretara mugatzen denean.
8. Lurralde Batzordeak Batzorde Eragile berritzen denean berrituko dira, hautespen horretarako arauak kontuan hartuta.

Bere ekimenez edo, gutxienez, lurraldeko bazkide titularren %12k eskatuta, Lurralde Batzordeak hautagaitza independenteek gobernaturako udaletako ordezkari bat gonbidatuko du, Elkarteko arauen ondorioz ordezkariarik lortu ez badute. Hartara, bertan parte hartu ahal izango du, zenbait gairi buruzko azterketa egin eta erabakiak hartzen direnean.

Partaidetza bazkide titularren eskaeraren ondorioz sortu denean, honakoa adierazi beharko da bertan: jorratu nahi duten udal-eskumenpeko gaia, bazkide titularren sinadura eta bazkide eskatzaileek izendatutako pertsonaren datuak. Pertsona horrek hitza izango du, baina botorik ez.

31. Artikulua

1. Dagokion Lurraldeko organoen aurrean udalerrien interesak defendatzea da Lurralde Batzordeen eginkizun nagusia, betiere Batzar Orokorrean eta Batzorde Eragileak onartutako irizpide orokorreari jarraiki.
2. Halaber, Lurralde Batzordeak Batzorde Eragilearen kontsulta-organoak izango dira, eta egoki deritzen txosten eta proposamenak egin eta goragoko organoen eraginean jarri ahal izango dituzte.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

32. Artikulua

Arau gisa, Lurralde Batzordeak hilean behin bilduko dira eta bilera horietan kide batek egingo ditu zuzendari-lanak. Kideak txandaka arituko dira bilera batetik bestera. Horretarako, bilkura bakoitzean hurrengoan zuzendari-lanak egitea zer batzordekideri dagokion adieraziko da.

33. Artikulua

Lurralde Batzorderen batean Batzorde Eragileko ordezkariak ez badago, Batzorde Eragileak ordezkari bat bidaliko du Lurralde Batzordeetako bileretara; horretarako, dagokion Lurralde Batzordeko ordezkariari bezala egingo zaie deialdia.

Organo guztietarako Xedapen Komunak

34. Artikulua

Bilkura guztiak hasi diren egun berean amaitu behar dira.

35. Artikulua

Gobernu-organoetan gaiak behar bezala aztertuko direla ziurtatzearen, bilerak zuzentzen dituenak edozein unetan bertan behera utzi ahal izango ditu, arrazoi justifikaturik badago.

36. Artikulua

Bilkura guztietan horren akta egin beharko da.

3. KAPITULUA. ANTOLAMENDUKO ETA FUNTZIONAMENDUKO BESTE ARAU BATZUK

37. Artikulua

1. Zuzendaria da Elkartearen organo eragilea.
2. Zuzendaria Batzorde Eragileak izendatzen du eta kentzen du kargutik.

38. Artikulua

Horrez gain, Akta-idazkari bat egongo da, organo eragileen erabakien fede emateko.

39. Artikulua

Botere Publikoentzako komunikazioak elkarteburuak sinatuko ditu, eta gainerakoak zuzendariak.

40. Artikulua

1. Urtero, dagokion ekitaldi ekonomikoan har daitezkeen obligazioen eta aurreikusten diren diru-sarreraren aurrekontua onartuko da.
2. Diru-sarreraren eta gastuen kontabilitatea kontabilitate publikoaren erregimenaren arabera egingo da. Kontabilitate-ekitaldia abenduaren 31n itxiko da.
3. Batzarrak kontuak onartu aurretik, Batzorde Eragileak horiei buruzko txostena egingo du.

41. Artikulua

Estatutuak eta Araudi hau prozedura honi jarraiki aldatuko dira:

- a) Espedienteari hasiera ematea.
Espedienteari Batzorde Eragilearen erabakiz emango zaio hasiera, ofizioz edo bazkide osoen bostenak edo beren botoez kide guztien botoen bostena lor dezaketen kideen kopuru jakin batek eskatuta.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Kasu horretan, eskaerarekin batera egungo arauak ordeztzeko proposatzen diren arauen testua aurkeztuko da, betiere aldatu nahi diren arauak zeintzuk diren zehatz-mehatz adierazita, eta Batzorde Eragileak eskaerari buruzko txostena egingo du hilabeteko epean; aldi berean, aldaketa horiek behin betiko onartzeko Batzarrerako deialdia egingo du.

b) Bazkideei informazioa ematea.

Batzorde Eragilearen proposamena edo, hala badagokio, espedienteari ofizios hasiera ematen ez zaionean bazkideen eskaera Batzorde Eragilearen txosten eta guzti, bazkideei jakinaraziko zaizkie Batzarra egingo den eguna baino bi hilabete lehenago, zuzenketak edo oharra egiteko aukera izan dezaten, eta zuzenketa nahiz ohar horiek Batzorde Eragileari helarazi beharko zaizkio bi hilabete horietako lehenengoan.

c) Espedientea onartzea.

Espedientea Batzarrari helaraziko zaio, behin betiko onar dezan. Aldez aurretik, Batzarrak epearen barruan aurkeztu diren zuzenketa eta oharrei buruzko ebazpena emango du egintza berean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA

Helbide soziala Gasteizeko Manuel Iradier kaleko 7. zenbakiko 2. solairuan finkatu da. Batzorde Eragilearen erabakiz, beste herri batzuetan unitate eragileak ezarri ahal izango dira.

BIGARRENA

Batzorde Eragileko kideak hautatzeko arauak

21.2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, honako arau hauek beteko dira:

1. Batzarrerako deialdia egiten denetik Batzarra egin arte gehienez ere bi hilabeteko tarte egongo da.
2. Bazkideak diren udalerrietako alkateak edo haiek izendatutako udalkideak izango dira hautesle nahiz hautagaiak.
3. Hautagitzak bilkura-eguna baino bost egun lehenago aurkeztuko dira.
4. Hautaketa-ekitaldiak bertaratu diren adin handiagoko eta txikiagoko hautesleek osatutako mahaia izango du burutzat, eta horretarako Elkarteko idazkariaren laguntza izango dute.
5. Hautesle bakoitzak zerrenda bakarrari emango dio botoa, bertan aldaketarik egin gabe eta hautagaien kokapen-ordena aldatu gabe
6. Zerrendei dagozkien postuak honako Arau hauei jarraiki esleituko dira:
 - a) Zerrenda bakoitzak lortutako botoen kopurua 15ez biderkatu eta emandako boto guztiekin zatikatuko da.
 - b) Zerrenda bakoitzari hauteskunde-kozienteak adierazten duen postu kopurua esleituko zaio, eta gainerako postuak, 15 bete arte, hondar handienak dituzten zerrendei esleituko zaizkie.
 - c) Zerrenda bakoitzari dagokion postu kopurua zehaztutakoan, postuak zerrendan agertzen diren hautagaiei esleituko zaizkie, bertan agertzen diren ordenaren arabera.
 - d) Elkarteburua boto gehien lortu dituen zerrendako burua izango da. Emandako botoen % 15 gutxienez lortu duten bigarren eta hirugarren zerrendetako buruak izango dira, hurrenez hurren, 1. eta 2. elkarteburuordeak. Bestela, botoen % 15 baino gehiago lortu dituzten zerrendetatik hautatuko dira elkarteburuordeak. Aurrekoa gorabehera, boto guztien lau bosten lortutako edozein hautagitzako kideak hautatuko dira.

HIRUGARRENA

Lurralde Batzordeetako ordezkariak hautatzeko arauak:

30. artikuluan xedatutakoari dagokionez, honako arau hauek beteko dira:

1. Ordezkari horiek Batzorde Eragileko ordezkariak hautatzeko egiten den Batzar Orokorraren ondoren hautatuko dira.
2. Dagokion Lurraldean bazkideak diren udalerrietako alkateak edo haiek izendatutako udalkideak izango dira hautesle nahiz hautagaiak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko apirilaren 15ean EUDELeko Batzar Orokorrak
onartutako Erakunde eta Funtzionamendu Araudia. (azken aldaketa)



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

3. Hautagaitzak hautaketa egin baino bost egun lehenago aurkeztuko dira.
4. Hautaketa-ekitaldiak bertaratu diren Lurralde bakoitzeko adin handiagoko eta txikiagoko hautesleek osatutako mahaia izango du burutzat, eta Elkarteko idazkaritza-zerbitzuaren laguntza izango dute.
5. Botazioa aldi berean egingo da, hautestontzi desberdinetan, eta emaitzak ere aldi berean emango dira.
6. Zerrenda guztiei dagozkien postuak esleitzeko, bederatziz biderkatuko da zerrenda bakoitzak lortutako boto kopurua eta emandako botoen kopuruarekin zatikatuko da; zerrenda bakoitzari bere hauteskunde-kozienteak adierazten duen postuen kopurua esleituko zaio, eta gainerako postuak, bederatziz bete arte, hondar handienak dituzten zerrendei esleituko zaizkie.

LAUGARRENA

Batzarrak kuoten (*) zenbatekoa ezartzeko etorkizunean hartzen dituen erabakiak Araudi honen Eranskin gisa atxikiko dira.

Aurtengo ekitaldirako -2008-, honako kuota hauek finkatu dira:

2.500 biztanlerainoko udalerrak:	50.000 pta/300,51 Euro
- 2.501etik 5.000 biztanlerainokoak:	150.000 pta/901,52 Euro
- 5.001etik 10.000 biztanlerainokoak:	250.000 pta/1.502,53 Euro
- 10.001etik 20.000 biztanlerainokoak:	500.000 pta/3.005,06 Euro
- 20.001etik 50.000 biztanlerainokoak:	750.000 pta/4.507,59 Euro
- 50.001etik 100.000 biztanlerainokoak:	1.000.000 pta/6.010,12 Euro
- 100.001etik 200.000 biztanlerainokoak:	1.250.000 pta/7.512,65 Euro
- 200.000 biztanletik gorakoak:	1.500.000 pta/9.015,18 Euro

(*) Koutak ez dira 1988tik aldatu.